




Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo




Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

“GAZTE ETORKINAK EUSKARARA HURRERATU” EGITASMOA – 2013



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

AURKIBIDEA

I.- SARRERA / AURREKARIAK:

- 1.1.- ESTATISTIKAK.
- 1.2.- BUSTURIALDEKO INMIGRAZIO PLANA – GURE EKARPENAK.
- 1.3.- JARRAIPEN BATZORDEAREN ERAKETA

2.- HELBURUAK

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU

- 3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO EKINTZA PLANA
- 3.2.- ERREFORTZURAKO IKASTARO BEREZIAK
- 3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2011” AZPIEGITASMOA
- 3.4.- “EUSLIDERRAK” EGITASMOA
- 3.5.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK
- 3.6.- BALIABIDEAK
- 3.7.- KRONOGRAMA


4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

5.- AURREKONTUA

- I. ERANSKINA:** Inkestaren emaitzak.
- II. ERANSKINA:** Ahize-rekin 2009an sinaturiko hitzarmena, 2011n eta 2012an luzatu dena.
- III. ERANSKINA:** “GAZTERREN 2011-2012ko balorazioa eta 2012-2013rako proposamena”.
- IV. ERANSKINA:** AHIZE-ren txostena (“Eusliderrak” esperientzia pilotuaren 2012ko txostena).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria

UNESCO Saria
2002 - 2003

1.- SARRERA / AURREKARIAK

Egitasmoaren lehenengo pausuak 2006rako eratzerakoan eskuetan genituen estatistikei erreparatuz, ondo argi agertzen zitzaigun gure eskualdean, Euskal Herri osoan gertatu bezala, etorkinen pilaketa azken lau/bost urteetako fenomeno dela.

Etorkinak, guztira, 1.505 izan dira 2011ko urtarrileko erroldan (biztanleriaren %9,1) eta euren adina aztertuz gero, 0-39 urte bitartekoen portzentajea % 72,30 dela ateratzen zaigu eta horietatik honako datuak:


- 0-17 urte bitartekoena % 27,83a
- 18-39 urte bitartekoena % 55a

Beraz, eskoletara bideratzekoak heren bat eta erdiak lanean aritzeko adinekoak. Ikasteko gaitasuna oso-osoan mantentzen diren adin-tarteak izanik, hizkuntza berri batez jabetzeko duten trebetasunari eutsi behar diogula uste izan dugu egitasmo honi ekiterakoan. Hargatik, etorkin helduei dagokienean euskara ikasteko motibazioa landu behar dugu eta euren pertzeptzioa lantzea, euskara beharrezko (lanerako, integratzeko, jolasteko, lagunak egiteko) dutela konturazteko. Atal honetan txertatuta ditugu Gazte etorkinei begirako Ekintza Plana (GuGazte) eta Gazterren egitasmoa.

Ikasle etorkinak direla-eta, ez dugu esango bidea errazagoa denik, baina gure udalerrian D erdua nagusi dugun irakaskuntzan murgilduta, euskararako bidea berezkoa izan daitekeela esaten ausartzen gara. Dena dela, horretarako baliabide falta nabaria dute zentroetan eta ikasle etorkinei irakaskuntzan eta gizartearen integratzeko laguntza eskaini beharrean aurkitu izan gara. Horretarako, Udal Eskola Kontseiluarekin eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearekin elkarlanean, abian jarri ziren 2006an egitasmo honi lotutako jardura berezi batzuk. Irakaskuntzari begirako atal honetan dihardugu lantzen errefortzuko ikastaroena iraungo urte askotan eta, aurtengoan, iaz aintzat hartutako beste bati ekingo diogu: Euslidersak egitasmoa (zentro bateko DBH-ko etapa osoan eragiteko hizkuntza ohiturak eta aurreiritziak lantzeko esperientzia pilotoa).



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

1.1.- ESTATISTIKAK


Ikasle atzeritarrak Busturialdean

Ikastetxeak	Ikasletoa Alumnado 2008/2009	Etorkinak Migra 2008/2009	Ikasletoa Alumnado 2009/2010	Etorkinak Migra 2009/2010	Ikasletoa Alumnado 2010/2011	Etorkinak Migra 2010/2011	Ikasletoa Alumnado 2011/2012	Etorkinak Migra 2011/2012
CEP Allende	696	35 (5,1%)	695	43 (6%)	748	56 (7,4%)	747	60 (8%)
CEP Barrutia	235	15 (6,3%)	245	3 (1,2%)	276	15 (5,4%)	290	20 (6,8%)
IES Barrutialde	216	9 (4,1%)	238	13 (5,4%)	234	7 (2,9%)	238	13 (5,5%)
IES Gernika	717	14 (1,9%)	735	19 (2,5%)	752	18 (2,3%)	772	26 (3,3%)
La Merced	307	113 (36,8%)	296	105(35,8%)	303	120 (39%)	301	141 (46,8%)
San Fidel	676	44 (6,5%)	678	45 (6,6%)	693	39 (5,6%)	719	46 (6,3%)
Seber Altube	582	15 (2,5%)	605	17 (2,8%)	616	7 (1,1%)	655	18 (2,7%)
Montorre (Arteg)	43	2 (4,6%)	45	4 (8,8%)	52	4 (7,6%)	48	10 (20%)
Mundaka	121	10 (8,2%)	137	14 (10%)	146	5 (3,4%)	155	7 (4,5%)
Ucelay (Busturi)	101	3 (2,9%)	103	3 (2,9%)	124	2 (1,6%)	123	6 (4,8%)
Urretxindorra	62	1 (1,6%)	67	4 (5,9%)	84	5 (5%)	100	8 (8%)
Publikoak	2.191	89 (4%)	2.265	103(4,5%)	2.416	112 (4,6%)	2.473	150 (6%)
Kontzertatuak	1.565	172 (10%)	1.579	167 (10%)	1.612	166 (9,9%)	1.675	205 (12,2%)
Orokorra/Total	3.756	261 (7%)	3.844	270 (7%)	4.028	278 (6,9%)	4.148	355 (8,5%)

Fuente/Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Bizkaia)/ Departamento de Educación, Universidades e Investigación (Bizkaia). %57,9 ZENTRO KONTZERTATUETAN ETA %42,1 PUBLIKOETAN



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Bakearen hiria
UNESCO Saria
2002 - 2003

Ikasle etorkinak etapaka Busturialdean

	2008/2009	2009/2010	2010/2011	2011/2012	ALDAKETAK
HAUR HEZKUN (0-5)	70	64	74	115	+41
LEHEN EZKUNTZA	113	118	128	156	+28
DBH	71	78	67	76	+9
BATXILERGOA	3	3	3	3	-
LANBIDE HEZ. (Erdi maila)				1	+1
LANBIDE HEZ. (Goiko maila)	4	7	5	4	-1
OROKORRAK	261	270	278	355	+77

Gernika-Lumoko zentroetan 324 ikasle etorki.

Gure udalerriari dagokionean, hurrengoak azpimarratu behar:

- **Berezitasuna.**- Beste udalerri batzuetan sare publikoak jasaten du ikasle etorkinen pilaketa eta Gernika-Lumon, ostera, zentro kontzertatuetan (%57,9) dago pilaketa.
- **Arriskua.**- Mertzede ikastetxean aurreko urteetan gertaturiko pilaketa harritzekoa izanda, Udal Eskola Kontseiluak orain dela bi urte hausnarketa egin zuen eta, etorkinen integrazioarako noraino kaltegarri izan zitekeen kontuan izanda, halako getolakoak ekiditzeko etorkinak matrikulatzeko orduan zentro guztien arteko oreka bilatu behar zela ebatzi zen. Horretarako, konpromisoa hartu zuten guztiek eta matrikulazioaren bilakaera kontrolatzeko urtean bi batzar egitea ere, Berritzeguneko teknikariak barru. Gorako joera moteldu egin da azken hiru urteetan, 2007-2008koarekin alderatuz.
- **Indargunea.**- Etorkinak matrikulatzen diren ereduak erreparatuz, 324tik 284 (%87,65) ikasle D ereduari daude; gainerako 40 ikasle etorkinak DBH-ko B ereduari ari dira Mertzede ikastetxean.

2011ko URTARRILAREN 1ean				2012ko URTARRILAREN 1ean			
	Biztanleria	Atzerritarrak	%	Biztanleria	Atzerritarrak	%	Aldaketa
	orokorra			orokorra			
ARRATZU	393	8	2%	392	9	2,2%	+1
BUSTURIA	1.795	62	3,4%	1.760	53	3%	-9
EA	918	30	3,2%	906	38	4,1%	+8
ELANTXOBE	425	23	5,4%	402	5	1,2%	-18
ERRIGOITI	557	20	3,5%	540	14	2,5%	-6
FORUA	997	56	5,6%	977	57	5,8%	+1
ARTEAGA	898	45	5%	917	55	5,9%	+10
GERNIKA	16.483	1.505	9,1%	16.858	1.718	10%	+213
IBARRANGELU	642	14	2,1%	645	9	1,3%	-5
KORTEZUBI	432	12	2,7%	426	10	2,3%	-2
MENDATA	386	6	1,5%	385	5	1,2%	-1
MORGA	413	8	1,9%	407	9	2,2%	+1
MUNDAKA	1.948	102	5,2%	1.960	113	5,7%	+11
MURUETA	309	11	3,5%	303	8	2,6%	-3
MUXIKA	1.493	50	3,3%	1.481	46	3,1%	-4
NABARNIZ	236	5	2,1%	227	5	2,2%	-
SUKARRIETA	362	18	4,9%	365	21	5,7%	+3
GUZTIRA	28.687	1.975	6,8%	28.951	2.175	7,5%	+200

Iturria: Biztanleen Udal-errola.

- 1) Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoa osatzen duten 17 udalerrietan **beste herrialde batzuetako 2.175 pertsona errolatuta daude, biztanle guztien %7,5**. Portzentai hau Bizkai osoan (2011an %6,2) eta Euskal Autonomi Erkidegoan (2011an %6,6 eta %8 espainar nazionalitatea hartu dutenak sartzen baditugu) dauden baino altuagoa da baina Estatu mailan dagoenarekin konpartuz (2011an %12,2) askoz baxuagoa da.
- 2) **2012ean errolatuta dauden atzerritarren kopurua igo da, 1.975 lagun izatetik 2.175 izatera (200 lagun gehiago). Datu honek ez dauka zerikusirik 2010ekoarekin**, urte horretan 17 atzerritar gehiago baino ez ziren errolatu. **2011an gertatu dena 2006 eta 2008an gertatu zenaren antza dauka, orduan, hamabi hilabetetan, 230 eta 258 atzerritar gehiago errolatu baitziren.**
- 3) **Heldu berrien artean erdiak Bizkaiko beste herri batzuetatik datoz, Bermeo eta Bilbotik bereziki. Beste batzuk, beste autonomi erkidego batzuetatik etorri dira, Madril eta Valentziatik bereziki. Badaude ere beraien herrietatik zuzenean heltzen direnak, gehienak errumaniarrak.**
- 4) **Gernika-Lumoko udalerrian Elkargoan dauden atzerritarren %78,9 biltzen dira (1.718 lagun errolatuta). Gernika-Lumoko biztanleriaren %10 beste herrialde batzuetatik**



dator. **2011tik 2012ra bitartean 213 izen-emate berri** erregistratu dira, gehienak errumaniarrak, saharauia eta brasildarrak. **2011an izan den biztanleri atzerritarren hazkundera paregabea izan da, ez dugu holakorik ezagutu.** Orain arte hazkunderik handienak 2005tik 2006ra eta 2007tik 2008ra izan ziren, 175 eta 176 lagun gehiago bakoitzean.

- 5) **Mankomunitatean dauden beste herrietako joerak ez dauka zerikusirik Gernika-Lumokoarekin.** Ea, Mundaka, Arteaga eta Sukarrietan kenduta —hauetan biztanleria atzerritarra gora doa—, **beste herrietan mantendu** egiten da (Arratzu, Foru, Mendata, Morga y Nabarniz) **edota jaitsi** (Busturia, Elantxobe, Ibarrangelu, Muxika).
- 6) 1996.urtetik 2012.urteko urtarrila arte Elkargoan erroldatutako atzerritar kopurua **hamahiru bider handitu da, 164 lagun izatetik 2.175 izatera.**
- 7) Atzerriko biztanleriaren **%43,7 Europako Batasunetik kanpoko herrialdetik** etorri da eta **Europako Batasunetik %56,3, %86,6 Errumaniatik.** Gehien bat ageri diren nazionalitateak honakoak dira: **errumaniarra (1.062 lagun), argentinarra (101), brasildarra (94), marokiarra (84), bolibiarra (83) eta saharauia (80).**
- 8) **Gehien handitu den taldea Errumaniakoa** izan da (132 pertson gehiago) eta gero **Saharakoa** (35 lagun gehiago, guztiak arjeliarrak bezala erroldatutak herrialde horren pasaportea dutelako) eta **Maroko eta Senegalekoa** (20 lagun gehiago bi kasuetan).
- 9) **Emakumeak** eskualdeko etorkin guztien **%54** dira. Atzerriko biztanleen **%55,4 18-39 urte bitartekoa da eta %18% adin txikikoa.**

1.2.- INMIGRAZIO PLANAREKIKO UZTARKETA

2005ean eratu zen I. Inmigrazio Plana eta 2008an bigarrena. Bietan hartu zuen parte Euskara Zerbitzuak eztabaidarako foroetan eta bere ekarpenak ere egin zituen; ekarpen horiek onartuak edo ez izatea baino gure helburu nagusia EBPNrekiko uztarketa eta loturak sendotzea izan da beti eta uste dugu lortu dugula.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateak eratu Inmigrazio Planean aintzat hartutako ekintzez gain, uztarketa horren frogagarri dira hurrengo koordinazio eta elkarlan guneak:

- Inmigrazio teknikariaren parte hartzea Udal Eskola Kontseiluan eta AHIZEk garatzen duen gazte etorkinei begirako Ekintza Planaren jarraipenean.
- Mankomunitateko Gizarte Hezitzaileen Eskuartze Taldearen jarduna AHIZEren Ekintza Planarekin duen lotura eta alde bien arteko elkarlana.
- Eratu den Jarraipen Batzordean Inmigrazio Teknikariaren parte hartzea.

1.3.- JARRAIPEN BATZORDEAREN ERAKETA

Euskararen normalizazioari eta ereduaren garapenari begira, etorkinen matrikulazioa kontuan hartzeko barietatea dugu. Horrek irakaskuntzan sortzen zuen arazoa bultzatuta eta Euskara Zerbitzua ere kezkatuta, 2005ean Udal Eskola Kontseilua bilakatu zen bilgune gai hori aztertzeko horri loturiko ekimenak abian jartzeko (errefortzurako ikastaroak, Ekintza Plana, 2011n Euslidersak). Urtero bi batzar izaten dira.

2012 urteari begira, Euskara Batzordeak Jarraipen Batzorde bat eratzea erabaki zuen etorri berrien gainerako hausnarketa egin eta “Gernika-Lumoko etorri berrien mapa” osatzeko (jatorria, bizilekua, adina, euren iritzia –guganakoak, ematen zaizkien zerbitzu publikoez, euskarari buruz-, aisia non eta zelan gauzatzen duten,...). Inkesta bat burutzea erabaki zen, emaitzen ezagupenetik egitasmoak egokitzeko datuak izatea helburu. Partaideak: Udal Euskaltegia, AEK euskaltegia, Inmigrazio Teknikaria, Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria eta Euskara Zinegotzia. Daborduko hiru batzar izan ditu.

Aipatu inkestak ez du izan arrakasta handirik, 1.400 bidali eta 80 bat besterik ez genituelako jaso. Beraz, tentuz hartu behar ditugu datuak (ikus 1. eranskina).

2. HELBURUAK

Indarrean dagoen Gernika-Lumoko Plan Estrategikoa (2009-2012) urte baterako luzatzea erabaki da eta, horren baitan, 2013ko Kudeaketa Plana eratu da (2012koaren parekoa). Hortxe islatzen dira egitasmo orokor honen helburuen EBPNrekiko uztarketa:

Helburu estrategikoa: Euskara ondorengoetaratzea.

Esparrua:

2. Euskalduntzea-Prestakuntza

Helburua:

2.1. Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

Neurria:

2.1.1. SENSIBILIZAZIOA

Ekintza:

(*) 2.1.1.29. Gazte etorkinei buruzko diagnostikoa oinarri, 2011ko ekintza plana moldatu eta inplementatu

Esparrua:

3. Irakaskuntza

Helburua:

3.2. Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.

Neurria:

3.2.2. ESKAINTZA SUSTATU

Ekintza:

(*) 3.2.2.14. DBHko ikasle etorkinei ikastaro bereziak eskaini, euskara ikasi eta sendotzeko

Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera

6. Aisia

Helburua:

6.1. Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.

Neurria:

6.1.4. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

Ekintza:

(*) 6.1.4.14. Etorkin gazteen integrazioa lantzeko "Gazterren" egitasmoa lagundu eta aholkularitza eskaini

3.- AZPIEGITASMOAK ETA NOLA BURUTU

Premiazko egoerak bultzatuta, gazte etorkinen esparruan eragiteko 2006an abian jarri genuen ikasle etorkinen errefortzurako egitasmoa, presaka behar bada, euskaltegiekin eta irakaskuntza zentroekin elkarlanean. Gero etorri zen Gizarte Zerbitzuetarako Mankomunitateko Kale Hezitzaileekin ekiteko gogoia eta aukera ezin hobeia: Gazterren egitasmoa.

2008an, gauzak apalago eta patxadaz hartzearen, hurrengo urteetarako ekinbideak argitu beharrean aurkitu izan ginenez, beste azpiegitasmo bat gauzatzeari ekin genion: Gazte etorkinei buruzko diagnostikoa burutzea; 2009an, I. Ekintza Plana garatu zen 2010ean eta laugarrenari ekin zaio 2013an.

2011n aurreikusi gabeko egitasmo bati eutsi genion, sarrera-idatzian aipatua: Eusliderrak egitasmoa (zentro bateko DBH-ko etapa osoan eragiteko hizkuntza ohiturak eta aurreiritziak lantzeko esperientzia pilotoa). 2011ko azaroan hasi eta 2012ko otsailean izan zuen amaiera lehenengo saioak eta 2013an horren jarraipenari eutsiko zaio.

3.1.- GAZTE ETORKINEI BEGIRAKO EKINTZA PLANA

Abian ditugun azpiegitasmoei hobeto ekiteko eta ekintza-esparru berrietara jotzeko, hau da, esparru formalean ez ezik esparru ez-formalerako tratamendua zehaztearen, gazte etorkinen munduari buruz 2008an egindako diagnostikoa oinarri, Ekintza Plan bat garatzen da urtero. Hamabi urtetik hogeita lau urtera arteko gazte etorkinen unibertsoa langai, 3 azpitaldetan banatuta:

- A 12tik 15era artekoak
- B 16tik 19ra artekoak
- C 20tik 24ra artekoak

Honakoa, AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitzarekin Udalak 2009an sinatu zuen hitzarmenaren jarraipena da eta 2013rako berriztatu egingo da hitzarmena Ekintza Planaren garapena helburu (**ikus 2. eranskina**)

3.2.- ERREFORTZURAKO IKASTARO BEREZIAK

2007-2008 ikasturterako, Udal Eskola Kontseiluak 2007ko irailaren 20an egindako bileran hausnartutakoa oinarri hartu zen erabakia ekarri behar gogora:



“... Erabakia:

- 1).- Berbalagun egitasmoaren barruan, etorkinen atala eratu eta indartu, etorkin gazteak ahal den neurrian aintzat hartuta.
- 2).- Ikastaroei dagokienean:
 - Ikasturte osoan antolatu, trimestreka, eta bi talde eratu une bakoitzean:
 - * Oinarrizkoa edo zero maila.
 - * Hasiera maila.
 - * Ordutegia: arratsalde (5:00etatik 7:00etara).
 - * Astean bi egunez.
 - Sasoi berezietan ikastaro bereziak eratzea; etorri berriak izan daitezkeen sasoietan batik bat (oporrak,...).
 - Hasiera ikastaroa modu egokian gaindituko lukeena, Berbalaguneko etorkinen atalera pasatzea.
 - Datuak jasotzeko epea: gaurtik aste beterako epean, zentroek datuak ematea (ikasle etorkinen fitxak).

Udal Euskaltegiko ordezkariak dioenez, ikastaroen helburuak, ordu kopuruak eta abarrak, eskoletan zehaztu beharko lirateke. Euskaltegiek eurek ezin dezakete soluzioa eman, konponbidea aurkitzen lagundu baino, kontuan hartuta euskaltegien malgutasun falta eta baliabide urriak...”

Gainera, bilgune berean, Udal Eskola Kontseiluan, 2008ko irailaren 30ean honako erabaki zen gai berberaren inguruan 2008-2009 ikasturterako:

“(...) Erabakia:

- 1).- Ikastaroak abian dauden bitartean, koordinazio batzarrak egingo dira hilerok.
- 2).- Ikastaroak iaz bezala antolatuko dira:
 - Bi maila: oinarrizkoa edo zero maila eta sakontze maila.
 - Noiz: neguan (azaroan hasi eta maiatzera arte) eta udan (uztailean).
 - Ordutegia: neguan arratsaldeko 5:00etatik 7:00etara eta udan goizeko ekitaldia.
 - Modulazioa: neguan ordu eta erdiko bi saio astean eta udan (uztailean) bi orduko saioak egunero.
- 3).- Datuak jasotzeko epea: gaurtik aste beterako epean, zentroek datuak ematea (ikasle etorkinen fitxak). (...)”

Azkenik, 2008ko irailaren 17an Udal Eskola Kontseiluak hartutako ebazia:



1).- *Mertzede ikastetxean kokatu ahal izateko aukera aztertzea, zentro horretako ordezkariaren bidez. Bertan eskaintzea ezinezkoa balitz, Udalak beste aukeraren bat aztertuko du.*

2).- *Ikastaroak, iaz bezala, bi izango dira: azarotik maiatzera artekoa (asteen bi ordu, arratsalde) eta uda sasoian (40 ordu ingurukoa, goizez eta eguneko bi ordu).*

3).- *Bi maila: hasiera maila eta sakontze maila.*

4).- *Ikasleak: DBHkoak eta onartu egingo dira LHkoak izan arren adinez DBHkoa liratekeenak.*

5).- *Ikastaroetarako ikasle etorkinen zerrendak jasotzeko epemuga urriaren 9a izango da.*

Beraz, 2007an finkaturiko ildoari jarraiki, hurrengo ikasturteetan ere bi ikastaro antolatu izan dira, bakoitzean bi talde izanik, oinarritzkoa edo zero maila (60 ordu) eta hasiera maila (60 ordu). Urtero egiten izan diren udako ikastaroak ezin izan dira burutu azken bi urteetan, aurrekontu murrizketa bitarteko.

3.3.- KALE HEZITZAILEEN “GAZTERREN 2013”

Derrigorrezko jo genuen bere sasoian Gizarte Zerbitzuetako **Mankomunitatearekiko zubiak eraiki eta elkarlanari eustea**, eurak direlako etorkinekin lehenengo harremana dutenak eta eskaintzen zaizkien laguntza guztien arduradunak.

Beraz, **kale hezitzaileen zerbitzuarekin elkarlanari ekitea** adostu dugu, euren lanetan laguntzeko eta euskararen normalizazioari begira gure aholkularitza eta baliabideak eskaintzeko. Lan esparru interesgarria guretzat, tratatzen dituzten gazteak familia arazoak dituztenak izanik, eurentako erdiak etorkinak direlako. Integrazioa lantzeko hizkuntzarena lantzea behar-beharrezko jo dugu eta horregatik bideratu da diru laguntza berezi bat zerbitzu horrekin elkarlanean eratu den “Gazterren 2012-2013” (Erretereria auzoan kokatuta dagoen lokalean aritzen direlako hartu dute izen hau) egitasmoa aurrera ateratzeko (ikus **III. Eranskinean** horri buruzko balantzea).

“Gazterren 2013” azpiegitasmoaren xede taldea, 2011koari jarraituz, 9-15 urte bitarteko gaztetxoei begirakoa izango da, gizarteratzeko arazoak (bai pertsonalak zein familiakoak bitarteko) dituztenentzat. Guztira 25 bat gaztek hartzen du parte eta horietatik erdiak, gutxi gora-behera, etorkinak izango dira.



Atal honetan aipamen berezia egin beharra dugu, egitasmo orokor honen baitan dauden azpi egitasmoen artean hezurmamitzen doan koordinazioa dela eta; Mankomunitateko **Gizarte Hezitzaileen Eskuartze Taldearen jarduna AHIZEren Ekintza Planarekin duen lotura** eta alde bien arteko elkarlana areagotzea dugu helburu 2013an.

3.4.- “EUSLIDERRAK” EGITASMOA

Euskararen erabilpena areagotzea dela eta, AHIZE enpresak proposamen bat aurkeztu zion Gernika-Lumoko Udalari 2011ko ekainean, “Eusliderrak” delako egitasmoa. Berau, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateak egindako ikerketetan oinarritua dugu, giza multzo berezietan aplikatu eta **hizkuntza ohituretan eragiteko metodologia** erabiliz.

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuak AHIZE enpresarekin hausnarketa egin ondoren, egokitutako jo zuen Berrizko Institutuan garatutako **esperientzia pilotuan oinarritu** eta Gernika-Lumon ere DBH mailan aplikatzea, Mertzede ikastetxeko **DBH-ko 3. mailan** hain zuzen. Hautaketaren arrazoiak: ikastetxe txikia, gela oso bat lantzeko aukera eta maila bakoitzeko gela bakarra, B ereduak eta ikasle etorkinen portzentajea ia %50koa zuena. Aurrekoak kontuan hartuta, egitasmoak eraginkortasun handia izan zezakeen erakunde osoan. Gainera, Mertzede ikastetxeko arduradunekin batzartu eta atseginez eutsi zioten aukera horri. Burutu zen, bada, lehenengo esperientzia hori eta, 2013an, horri jarraipena eman gura diogu.

Gernika-Lumoko Udalak, udalerriko Plan Estrategikoa inplementatzeko beste hitzarmen bat ere sinatuta dauka AHIZE enpresarekin, etorkin gazteak euskararen mundura erakartzeko Ekintza Plana garatzea helburu: GUGAZTE programa deitzen da. Hori horrela, hitzarmen biak, aipatutakoa eta honakoa, uztartzeko asmoa dute sinatzaileek 2013rako.

Ikus IV. eranskina (AHIZE eta Gernika-Lumoko Udalaren arteko hitzarmena bi urterako).

3.5.- ERAGILEAK ETA BAKOITZAREN LANAK

- Euskara Zerbitzua (ardura orokorrak):

- Egitasmoa eratu eta garapena koordinatzeko ardura nagusia.
- Batzarretarako deialdiak egin eta idazkaritza lanak bete.
- Plan Estrategikoaren 2013ko Kudeaketa Planean diru-baliabideak finkatu egitasmoa garatu ahal izateko.
- Azpi egitasmoen garapenari jarraipena egiteko ardura nagusia.

- **Udal Eskola Kontseilua (errefortzurako ikastaro bereziak):**
 - Partaide udalerriko irakaskuntza zentro guztiak.
 - Inplikaturiko gainerako eragile guztien bilgunea.
 - Bertan erabaki dira egitasmoa garatzeko orientabide nagusiak.
 - Jarraipenaren eta emaitzen berri emateko bilgunea.

- **Berritzegunea (errefortzurako ikastaro bereziak):**
 - Udal Eskola Kontseiluko partaide berezia.
 - Matrikulazioaren gora-beheretako arduraduna, egitasmoarekin zerikusia duen neurrian.
 - Bere ardurapean dagoen ikasle etorkinen inguruko “Mintegia” izango da egitasmoari buruzko metodologiaren oinarriak finkatzeko bilgunea (euskaltegiak barru).

- **AEK Euskaltegia (errefortzurako ikastaro bereziak):**
 - Euskara Zerbitzuarekin estu-estu ekin diote egitasmoaren zehaztasunak lantzeko.
 - Parte hartu dute Berritzeguneko Mintegian metodologiaren inguruko zalantzak argitzeko.
 - Euren ardura izan da ikasle etorkinei eskaini zaizkien ikastaroetako ekintza alternatiboak eta programazioaren zehaztapenak egitea, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean.
 - Programazioa behin finkatuz gero, Udal Eskola Kontseiluan aurkeztu da, behin-betiko onarpena izatearren.

- **AHIZE-AEK hizkuntza aholkularitza (Etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana-2013):**
 - Udalarekin 2009an sinatutako hitzarmena bitarteko, 2012koa egokituko da (I. eranskina).
 - AHIZE-ko teknikaria arduratuko da azpiegitasmo horren koordinazio eta garapenaz.

- **Gizarte Zerbitzuetako mankomunitatea (Etorri berri gazteak euskal mundura erakartzeko Ekintza Plana / Gazterren 2012-2013):**
 - Kale hezitzaileen zerbitzua bitarteko, etorkinekin aisialdia euskaraz lantzearen egitasmoa (“Gazterren 2012”) burutzeko egitasmoaren ardura izango dute.
 - Inmigrazio Teknikariaren inplikazioa (Udal Eskola Kontseiluan eta Jarraipen Batzordean)

- **Jarraipen Batzordea** (Udal Euskaltegia, AEK euskaltegia, Inmigrazio Teknikaria, Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria eta Euskara Zinegotzia) eratu da Euskara Batzordearen aginduz, inkesta berezi bat egin eta adin desberdinetako etorri berrien pertzeptzioen eta jokabideen berri izateko, burutzen ditugun egitasmoekin asmatzen dugun jakitea helburu.

3.6.- BALIABIDEAK

- Giza baliabideak:

- Euskara Zerbitzuko lanak **HNT I** Teknikariak beteko ditu.
- **Berritzegunearen aldetik**, matrikulazioaren jarraipenerako ardura duen Teknikaria eta Euskara Teknikaria (Berritzeguneak ikasle etorkinen ingurukoa aztertzeke daukan mintegia berak zuzenduko du).
- **Euskaltegietako zuzendariak** (2), egitasmoa eratu eta jarraipenerako ardura izango dutenak, eta irakasleak/dinamizatzaileak (2), programatutakoa garatzeko arduradunak berauek.
- **Gizarte zerbitzuetako mankomunitatekoak**: Inmigrazio Teknikaria eta 2 kale hezitzaile.
- **AHIZE-AEK-k garatuko ditunak:**
 - Ekintza plana koordinatu eta garatzeko teknikaria (astean 8 orduz arituko da). Koordinazio bilerak.
 - Eusliderrak azpiegitasmoa: garapenaz arduratuko den teknikaria eta AHIZE aholkularitzako teknikaria (laguntza tekniko).

- Diru eta material baliabideak, Euskara Zerbitzuarenak:

- 2013ko Kudeaketa Planean aurreikusitako partida bereziak egitasmoa garatzeko (Ekintza planarena, errefortzurako ikastaroena, eusliderrak egitasmoarena, Gazterren egitasmoarena).
- Materialak eta lokalak lortzeko gestioak egiteko ardura izango du.

3.7.- KRONOGRAMA

Azpiegitasmoak	Urtean zeharreko garapena											
Ikastaro bereziak	AZA ABEN	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Batzarrak Esk. Konts. Eta euskaltegiak (jarraipena)												
Metodologia eta programazioa landu (Euskalt. / Berritzegunea)												
Ikastaldeak eratu												
Ikastaroak eman												
Gazterren 2010-2011	AZA ABEN	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Kale hezitzaileen taldeak dinamizatzea (asteroko ekintzak eta hamabosterik behingo irteera)												
Gazteak erakartzeko Ekintza Plana	AZA ABEN	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Koord / Antol / Hausn												
Tailerrak (antzerkia)												
Hitzaldiak / Foroak												
Jai ospakizunak												
Asteburuetako barnet												
Irteerak												
Berbalagun (talde pilotua)												
Inmigrazio Plana eta Gazte Planarekiko uztark/ koordinazioa												
Matrikulazioaren jarraipena												
Eusliderrak egitasmoa	AZA ABEN	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	IRAI	URR	AZA	ABEN
Batzarrak (Mertzede ikast.)												
Taldeak eratzea												
Hasierako neurketa (erab.)												
Motibazioa saioak												
Saio eraginkorrak												
Amaierako neurketa (erab)												
Amaierako txostena												

4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Gazte etorkinei begirako Ekintza Planaren kasuan, xede taldea, gutxi gora-behera, 230 gazteena da:

- A 12tik 15era artekoak..... 80
- B 16tik 19ra artekoak..... 70
- C 20tik 24ra artekoak..... 70

Ekintza Planaren emaitzak neurtzeko adierazleak:

- Partaide kopurua xede taldearekiko.
- Finkaturiko eragile nagusien partaidetza.
- Partaideen artean euskara gaitasuna lortzen dutenen kopurua.

Ikastaroen azpiegitasmorako xede taldea 70 ikaslekoa da, DBHn matrikulatuta dauden ikasle etorkinak eta emaitzak baloratzeko adierazle nagusiak:

- Ikastaroetako partaide kopurua.
- Helburua lortu dutenen portzentajea.

“Gazterren 2012-2013” azpiegitasmoarekin lantzen den unibertsoa 9-15 urte bitarteko gaztetxoena da (tarte horretan sartzen diren gazte etorkinak barru, 90 gutxi gora-behera) eta, zehatzago, egitasmoaren xede taldea gizarteratzeko arazoak (bai pertsonalak zein familiakoak bitarteko) dituzten gazteena da. Beraz, xede taldea zenbatekoa den jakitea aldeztu aurretik ez da erraza eta errazagoa da unibertso osoa lantzea. Emaitzak neurtzeko adierazleak:

- Partaide kopurua.
- Lantaldeetan izandako baja kopurua.
- Lantaldetik kanpoan geratu direnak. gizarteratzeko beste bide bat aurkitu dutelako.

Eusliderrak-2013 egitasmoa DBH 3. eta 4. mailako 50 ikaslerekin gauzatuko da Mertzede ikastetxean (bi gela, ziklo osoa). Esperientzia pilotu honek argitasuna emango digu beste esparru batzuetan metodologia bera erabili ahal izateko.

Adierazlea: hasierako neurketa eta amaierako neurketaren arteko aldea.

5.- AURREKONTUA

KONTZEPTUAK	KOPURUAK
Errefortzurako ikastaro bereziak DBHko ikasle etorkinei: - Ikasturteko taldeak 5.000 euro - Udako taldeak 3.500 euro	6.000
“Gazterren 2012” azpi egitasmoa, kale hezitzaileen zerbitzuak (dinamizazioa –bi begirale- eta ekintzak)	1.300
Gazte etorkinei begirako Ekintza Plana 201 (Ahize-AEK ahoLkularitza): - Koordinaziorako teknikaria (7.000 €) - Ekintza Planeko ekintzak burutzeko (1.000 €)	8.000
- Eusliderrak azpiegitasmoa	4.000
GUZTIRA	19.300

Gernika-Lumon, 2013ko urtarrilean.

Esperanza Uriarte Erdaide
EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIA

Bittor Zarrabeitia Bengoa
HIZKUNTZA NORMALIZAZIORAKO TEK.

I. ERANSKINA

Inkestaren emaitzak



GERNIKA-LUMOKO ETORKINEI INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA

EMAITZAK

Bidalitako inkestak: 1.400 inguru.

Jasotako erantzunak: 78 erantzun.

DATU OROKORRAK / DATOS GENERALES

Sexua / Sexo: G/V %50 E/M %50		
Gernika-Lumora etorri zinen urtea Año de llegada a Gernika-Lumo?		
2003-2007: 39.....%50 2008-2009: 4.....etena 2010-2012: 31.....%40		
Ikasketa maila / Nivel de estudios	Ikasketa barik	%19,23
	Lehen mailako ikasketak	%24,36
	Erdi mailako ikasketak	%42,30
	Goi mailakoak	%14,10
Lanean, zein sektoretan? Si trabajas, ¿en qué sector?	Etxeko lanak / Servicio doméstico	%24,36
	Ostalaritza/merkataritza / Hostelería/comercio	%14,10
	Eraikuntza / Construcción	%11,53
	Industria	%2,56
	Nekazaritza / Agricultura (sector de la madera...)	%2,56
	Beste batzuk / Otros sectores	%14,10
	Lanik barik / Sin trabajo	%30,76

Ondorioak:

- Gehiengo batek erdi eta goiko mailako ikasketak ditu (%56,40) eta ikasketa bakoa %19,23a da.
- Emakume eta gizonezkoen portzentajeak parekoak dira (%50a).
- Lanari dagokionean, etxeetako lanetan dihardu gehiengoak (%24,36); hurrengo, ostalaritza/merkataritza (%14,10). Azpimarratzekoa da langabetuen portzentajea; %30,76.

ZALETASUNAK / AFICIONES

Gustukoen dituzun zaletasunak (3 azpimarratu) Aficiones preferidas (subrayar 3 de ellas)	Kirola (egin, ikusi,...) / Deporte (practicar, ver,...)	% 14,10
	Irakurri / Leer	% 12,33
	Musika praktikatu / Practicar/estudiar música	----
	Zinema, antzerkia, kontzertuak / Cine, teatro, conciertos	% 7,90
	Lagunartean egotea / Estar en cuadrilla	% 12,77
	Etxekoekin egotea / Estar en familia	% 14,10
	Bideo jokoak / Videojuegos	----
	Bidaiatzea / Viajar	----
	Motor zalea / Afición a motos, coches,...	----
Nora jotzen duzu zaletasuna praktikatzeko? Markatu 3 aukera Dónde practicas tu afición? Marca 3 opciones	Erosketak egitea / Ir de compras	----
	Tabernak / Bares	% 10,87
	Saltokiak / Tiendas	% 9,23
	Kultur Etxea / Casa de Cultura (talleres, biblioteca,...)	% 15,23
	Herriko plazak / Plazas del municipio	% 13,58
	Santanape Kiroldegia / Polideportivo Santanape	% 10,87
	Urbietan kiroldegia / Campos de Urbietan	% 5,98
	Kirol elkarteak / Asociaciones deportivas	% 0,54
	Kultur Elkarteak / Asociaciones culturales	% 5,43
	Etxean / En casa	% 27,77

Ondorioak:

- Gustukoen zaletasunak: **kirola eta etxekoekin egotea** (%14,10), **lagunartean egotea** (%12,77) eta **irakurtzea** (%12,33)
- Nora jo zaletasuna praktikatzeko: gehienak **etxean** (%27,77), **Kultur Etxean** (%15,23), **herriko plazetan** (%13,58) eta **tabernetan** (%10,87)

EUSKARARI DAGOZKIONAK / SOBRE EL EUSKERA

Ezagutzen al duzu euskara?		- Ezer ez / Nada: _____	% 64,00
¿Conoces el euskera?		- Ulertu / Entiendo: _____	% 7,69
		- Ahoz zerbait / Hablo algo: _____	% 21,79
		- Idatzi zerbait / Escribo algo: _____	% 7,69
Euskara ikasteko aukerarik?			
¿Posibilidad de aprender euskera?		Bai / Sí % 93	Ez / No % 17
Astean zenbat ordu? Aukerak:		- 2 ordu / horas	% 54
¿Cuántas horas a la semana? Opciones:		- 4 ordu / horas	% 11,54
		- 6 ordu / horas	% 28
Asteko zein egunetan eta ordutan? / Qué día/s de la semana y qué horario?			
<i>Lunes / Astelehena</i> % 22,31		Goizez / Mañana	%40
<i>Martes / Martitzena</i> % 19,83		Eguerdian / Mediodía	%13
<i>Miércoles / Eguaztena</i> %19,83		Arratsalde / Tarde	%47
<i>Jueves / Eguena</i> %14,87			

Ondorioak:

- Euskara **ezer ez dakitenak: %64,00. Ahoz zerbait: %21,79. Ulertu: %7,69. Idatzi: %7,69.**
- Euskara **ikasteko aukera edo gogoa: %93. Astean zenbat ordu: gehiengoak astean 2 orduko aukera (%54), baina 6 orduko aukerari ere %28ak eusten dio.**
- **Ikasteko egunak: astelehena, martitzena eta eguaztena** (hurrenkeran laugarren eguna). Ordu-tegiari dagokionean, **goizez %40ak eta arratsalde %47ak.**

INKESTATUAREN PERTZEPTZIOA / PERCEPCION r/ A SERVICIOS

Baloratu 1etik 10era zurekiko bertokoek izan duten jarrera Valora del 1 al 10 la actitud de la gente autóctona hacia tí	8,01
Gizarte zerbitzuak baloratu 1etik 10era Valora los servicios sociales del 1 al 10	8,56
Hezkuntza zerbitzuak baloratu 1etik 10era Valora los servicios educativos del 1 al 10	8,47
Kirol instalakuntzak baloratu 1etik 10era Valora las instalaciones deportivas del 1 al 10	Kiroldegia/Polideportivo 9,10
	Urbietia/Campos de Urbietia 9,28
Kultur programazioa baloratu 1etik 10era Valora la programación cultural del 1 al 10	
Kultur instalakuntzak baloratu 1etik 10era Valora las instalaciones culturales del 1 al 10	Kultur etxea 8,77
	Liburutegia 8,60
	Gazte lekua 8,69
Hemengo kaleko bizimoduaz duzun iritzia Tu opinión sobre la vida en la calle en el municipio	Gustuko ez % 1,28
	Arrunta % 34,61
	Atsegin % 46,15
	Oso atsegin % 15,38

Ondorioak:

- **Bertokoen jarrera eurekiko: %8,01** (balorazio nahiko positiboa).
- **Gizarte eta hezkuntza zerbitzuen balorazioa are positiboagoa (%8,50)**
- **Gehien baloratutako zerbitzuak:** batetik, **kiroldegia eta Urbietia (9tik gora)** eta, bestetik, **Kultur Etxea** eta barruko zerbitzuak (**ia 9aren inguruan**).
- **Bertoko bizimodua atsegin dute gehienek (%46,15) eta oso atsegin %15,38ak.** Arrunta egiten zaio %34,61ari.

II. ERANSKINA

**“AHIZE HIZKUNTZA AHOLKULARITZA”
ETA GERNIKA-LUMOKO UDALAREN
ARTEKO HITZARMENA**

**“GERNIKA-LUMOKO ETORRI BERRI
GAZTEAK EUSKAL MUNDURA
ERAKARTZEARREN 20...ko EKINTZA
PLANA GARATZEKO HITZARMENA**

Gernika-Lumoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko-ren-n eta Udal Idazkaria naizen Jon Goikoetxea Etxebarria Jaunaren aurrean.

BILDUTA

Batetik, Mertxe Mugika Balanzategi, adinekoa eta 78864768E NAN zenbakiduna, Euskaraz koop. E. izenean arituz (IFK: F 95222816).

Bestetik, JOSE MARIA GORROÑO ETXEBARRIA Jauna, adinekoa, Gernika-Lumoko Udaleko udal-batzarburua, 7/1985 Legearen 21.1.B) artikulua ezarritakoaren arabera udalaren izenean jarduten duenak.

ADIERAZTEN DUTE

I

Gernika-Lumoko Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa 2003ko apirilaren 30ean onartu zuen eta horren ildotik hamalau gizarte esparru lantzeari ekin dio azken urteotan. 2009-2012 eperako Plan Estrategiko berria ere eratu eta onartu du Gernika-Lumoko Udalbatzak 2008ko abenduaren 17ko Osoko Bilkuran, hurrengo helburu estrategiko nagusiekin lotuta:

- 1. helburu estrategikoa: euskara ondorengoetaratzea.
- 2. helburu estrategikoa: euskararen erabilpena.
- 3. helburu estrategikoa: euskara elikatzea.

II

Gernika-Lumoko Udalak euskalduntze-alfabetatze esparruan eragiteko Euskaraz koop. E.ren zerbitzua den Ahize Hizkuntza Aholkularitzarekin hitzarmena sinatu zuen 2008an, "Gernika-Lumoko etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko Plan Estrategikoa diseinatu eta abiatzeko" lemapean.

III



Plan Estrategikoa inplementatzeko eta aipatutako diagnostikoa oinarri, Gernika-Lumoko Udalak 2009 eta 2010eko Kudeaketa Planetan aintzat hartu zuen Ekintza Plan berezi bat garatzea eta 2012rako ere beste hainbeste aurreikusita dago:

Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.

2. Euskalduntzea-prestakuntza

2.1. Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

2.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

2.1.1.16. Gazte etorkinei buruzko diagnostikoa oinarri, 2010erako ekintza plana moldatu eta inplementatu

Hori horrela, 2011ko aurkeztu zuen Ahize Hizkuntza Aholkularitzak 2012rako Ekintza Plana.

IV

Arestikoak kontuan hartuta, Ahize Hizkuntza Aholkularitzak eta Gernika-Lumoko Udalak helburuetan bat eginda, elkarlanerako gogoa berretsi eta honako HITZARMENA sinatzen dute. Horretarako, finkatu egiten dituzte hurrengo

KLAUSULAK

Lehena.- Ahize Hizkuntza Aholkularitzak konpromisoa hartu du “Gernika-Lumoko etorkin gazteak euskal mundura erakartzeko 2011ko Ekintza Plana” burutzeko, hitzarmenaren eranskinean agertu bezala. Horretarako, 12 urtetik 24 urtera arteko Gernika-Lumoko etorkin gazteak izango dira jomuga, 3 multzo edo azpi-taldetan bereizita:



- A) 12 urtetik 15 urtera arteko gazteak
- B) 16 urtetik 19 urtera arteko gazteak
- C) 20 urtetik 24 urtera arteko gazteak

Bigarrena.- Aipatu Ekintza Plana dela eta, Ahize Hizkuntza Aholkularitzak hurrengo lanak beteko ditu:

- Laguntza teknikoa eta metodologikoa emango dio Gernika-Lumoko Udalari kudeaketa plana diseinatu eta garatzeko.
- Proiektuan parte hartuko duten eragile desberdinen koordinazio, antolaketa eta hausnarketa lanak, horretarako bileren dinamizazio eta dokumentazio lanak kudeatuko ditu.
- Hausnarketa-taldearen bilerak dinamizatu, eta behar diren koordinazio- eta komunikazio-lanak egin.
- Ekintza planaren baitako irteera, hitzaldi eta orotariko ekintzen antolaketa, koordinazioa eta dinamizazioa garatuko ditu.
- Proiektuaren hobekuntzari begira, inmigrazio, euskara eta gazte planetako Udal teknikariek koordinazioa landuko du.
- Halaber, udalerriko eskolekin harremana eta koordinazioa garatuko ditu ekintza plan koordinatua osatzeari begira, eta bereziki matrikulazioan jarraipen lanak egingo ditu.
- Prozesuaren emaitza diren txostenak idatzi.

Arestiko lanetarako honako giza baliabideak erabiliko ditu Ahize Hizkuntza Aholkularitzak:

- Proiektua bideratuko duen teknikaria: Iratxe Garmendia teknikaria, astero 8 orduz arituko da, orotara 322 ordu.

- Proiektu koordinatzailea: Isusko Diez teknikaria. Alde operatiboa eta udalarekiko koordinazio-lana bideratuko du.
- Proiektuaren jagolea: Igone Olabarria Gernikako AEK euskaltegiaren arduraduna. Proiektuaren ikusmira eta estrategikotasunaz arduratuko da.

Hirugarrena.- Ahize Hizkuntza Aholkularitzak, bigarren klausulan aipaturiko lanen jarraipenerako, hiru hilabeterik behingo txostena aurkeztuko dio Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuari, berau izango baita proiektuaren jarraipena eta zaintzaren ardura izango duena. Kronograma horrekin bat, koordinazio bilerak egingo dituzte hitzarmen sinatzaileek eta bertan hartuko dute parte proiektuaren koordinatzaileak, proiektua bideratuko duen teknikariak, proiektuaren jagoleak eta, Udalaren aldetik, Euskara zinegotziak eta Hizkuntza Normalizaziorako Teknikariak (HNT1).

Laugarrena.- Hitzarmen honi erantsita doan agiria, “Gazte etorkinak euskarara hurreratu-2011” egitasmoa hain zuzen, hitzarmen honetan aintzat hartutako konpromisoak gauzatzeko jarraibide nagusia izango da, bai egin beharreko lanak, lan-sistema, inplikatu beharreko eragileak eta koordinazio bideak zehazteko orduan.

Bosgarrena.- Gernika-Lumoko Udalak, hitzarmen honekiko hurrengo konpromisoak hartu ditu:

1.- Ekintza Plana burutzeko sortuko den koordinazio-gunean parte hartu.

2.- Proiektua gauzatzeko beharko diren azpiegitura eta gainerako baliabideak eskaintzea, Kultur Etxean hitzarmengintza kanpainarako euskara dinamizatzaileak erabiltzen duena izango delarik.

3.- 2012ko aurrekontuan 12.500 € bideratzea hitzarmen honen xede den egitasmoa burutzeko. Kopuru hori, bi zatitan banatuta dago:



- 11.000 € (BEZ barru), Ahize Hizkuntza Aholkularitzaren lanak ordaintzeko erabili eta ordainketa hiru zatitan egingo da (%25 hitzarmena sinatu eta batera, beste %25 irailean eta, gainerako %50 2010eko abenduan.
- 1.500 €, Ekintza Planeko jardun bereziak burutzeko, Gernika-Lumoko Udalak zuzenean ordainketak eginez.

Seigarrena.- Elkarlanerako Hitzarmen hau sinatu eta indarrean izango da urte beteko epean. Sinatzen duten alde biek adostuz gero, honako hitzarmena berretsi eta bere indar epea luzatu ahal izango dute dituen baldintza berdinekin edo eurretako batzuk egokituz.

Eta adostasunaren seinale, honako agiria sinatu dute ekitaldiko partaide guztiek, idazpuruan aipatutako leku eta datan.

ALKATEA,

EUSKARAZ KOOP. E
(Ahize hizkuntza aholkularitza).

Jose Maria Gorroño Etxebarrieta

Mertxe Mugika Balanzategi

EUSKARA
ARLOKO ZINEGOTZIA

IDAZKARIA,

Esperanza Uriarte Erdaide


Jon Goikoetxea Etxebarria



III. ERANSKINA

GAZTERREN 2011-2012ko balorazioa eta 2012-2013rako PROPOSAMENA





• SARRERA

Gizarte Hezitzaileen Esku-hartze Taldeak (GHET) eramaten duen taldekako esku-hartze hau, 8-12 urte bitarteko gazteentzat bideratua dago.

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuaren Mankomunitatea osatzen duten herrietako umeei zuzendua dago. Ume gehienak Gernikakoak badira ere, badaude Mankomunitateko beste herrietako partaide batzuk ere.

Urte honetan zerbitzuan praktiketako ikaslea izan dugu, hau aprobetxatuz, hezitzailearen eta Urtxintxako begiraleaz gain, praktiketako ikaslearen laguntza izan dugu, bere partaidetza Urtxintxa programaren monitorearekin tartekatuta dugu.

• HELBURUAK

Euskalduntze eta gizarte integrazio programaren helburuak honako hauek izan dira:

- Taldekideen partaidetza finkatu adin eta beharrianak kontutan izanik.
- Gizarte harremanetan zailtasunak dituzten adin txikiko neska-mutil etorkinen harrera lana egitea eta parekoekin harremanetan jartzeko gunea ahalbidetzea.
- Etorkinen integrazioa erraztu eta programa, beraien ekarpenekin aberastea.



PROGRAMAREN PROZEDURA **11/12 URTEAN**

EGUNA	EKINTZA
1. 19-10-11	LEHEN EGUNA, AURKEZPEN KOLASAK,
2. 26-10-11	PRAKTIKETAKO NESKAREKIN JOLASAK
3. 09-11-11	PAPEREZKO TAILERRA, MOLINILLO BAT EGIN
4. 16-11-11	MATRAKAN MAHAI JOLASA
5. 23-11-11	GLOBOFLEXIA TAILERR
6. 30-11-11	ZINEMA EGUNA
7. 7-12-11	GABONETAKO APAINKETAK EGIN
8. 14-12-11	OLENTZEROREN TAILERRA, IPUINA, MARGOAK, JOLASAK...
9. 26-12-11	ZORNOTZAKO PIN-ERA IRTEERA,
10. 11-01-12	URTIXINTXAKO MONITOREAREN LEHEN EGUNA,
11. 18-01-12	KANPO JOLASAK
12. 25-01-12	MAHAI JOLASAK
13. 01-02-12	IRUDI LEHIAKETA
14. 08-02-12	OLINPIADAK
15. 15-02-12	MAHAI JOLASAK
16. 22-02-12	TARTALO ETA LAMIAREN MOZORROAK EGIN,
17. 29-02-12	HERRI KIROLAK
18. 07-03-12	EMAKUME LANGILEAREN EGUNA
19. 14-03-12	KANPO JOLASAK
20. 21-03-12	URTIXINTXAREN 25 URTEAURRENA, SAIO BEREZIA,
21. 28-03-12	KANPO JOLASAK
22. 04-04-12	TAILERRA, KOMETA BAT EGIN
23. 11-04-12	ASTE SANTUA, BERMEOKO BALEONTZIRA IRTEERA
24. 18-04-12	MUNDU BIRA, BRASILEKO JOLASAK ETA PASTELAK EGIN,
25. 25-04-12	MAHAI JOLASAK
26. 02-05-12	MUNDU BIRA, SAHARAKO JOLAS ETA TAILERRAK EGIN,
27. 09-05-12	KANPO JOLASAK
28. 16-05-12	MUNDU BIRA, JAPONENKO PAPERREZKO IRUDIAK ETA HITZAK,
29. 23-05-12	ANTZERKI ASTEA LIZEOAN
30. 27-05-12	MUNDU BIRA, ERRUMANIAKO MARTISOR PULTSERAK EGIN,
31. 06-06-12	MUNDU BIRA, BOLIVIAKO PIÑATA BAT EGIN
32. 13-06-12	ZINEMA EGUNA
33. 20-06-12	AZKEN EGUNA, UDAKO EKINTZEN AURKEZPENA
34. 04-07-12	ARKU TIROKETA ETA ESKALADA
35. 11-07-12	URDAIBAITIK IBILBIDEA
36. 18-07-12	PISTINETARA
37. 25-07-12	URTE OSOKO EKINTZEN ARGAZKIAK IKUSI GURASO ETA PARTAIDE GUZTIEKIN, AZKEN JAIA,

PARTAIDEAK GUZTIRA 11/12

- PARTAIDEAK GUZTIRA

	GUZTIRA	BERTOKOAK	ETORKINAK
PARTAIDEAK	26	10	16
MUTILAK	10	6	4
NESKAK	16	4	12

NESKA-MUTIL ETORKINEN JATORRIA 11/12

JATORRIA	KOPURUA
ERRUMANIA	8
BOLIVIA	3
JAPON	2
BRASIL	1
PARAGUAI	1
MARRUECOS	1
GUZTIRA	16



• EBALUAZIOA

Urte osoko partaide kopurua 26 pertsonatakoa izan da. Horietatik 16 neska-mutil etorkinak izan dira. Orokorrean nesken partaidetza mutilena baino altuagoa da. Taldekideen partaidetza finkatu eta handitu dugu.

Parte hartu dutenetatik, askok Mankomunitateko Haurtzaro Arloko beste programaren batean ere badira, espazio horretaz gain beste harreman bat izateak, beraien partaidetza ziurtatzen du.

Azkenen saioetan, ume berriak hurbildu dira, udako ekintzetan parte hartu dutenak hain zuzen ere. Ume hauen helburua udako ekintzetan parte hartzea izan da, taldea ezagutzen joan eta hurrengo ikasturtean nahi izanez gero antolatutako ekintzetara etortzeko.

Beraz, hurrengo urterako, taldea mantendu eta neska-mutil berriei parte hartzeko aukera emateko asmoa dugu, taldea finkatzeko helburuarekin.

Neska-mutil berdinek astero etortzen ez badira ere, batezbestekoa mantentzen dugu.

Egin diren ekintza guztiak kontutan izanda eta honek umeengan izan duen erantzuna ikusita, programaren helburuak betetzen direla esan dezakegu, neska-mutilek gizarte harremanetan dituzten zailtasunak gainditu eta adiskidetasun harremanak egiteko gunea ahalbidetzen baitugu.

Jolasak eta tailerrak adin eta taldearen beharizanetara egokitu dira, horretarako beharrezkoak den metodologia erabiliz.

Urtean zehar landutako ekintzak anitzak izan dira: Hizkuntzarekin jolasean, jarrera kooperatiboak lantzeko jolasak, ezagutza eta konfiantza jolasak, emozioak lantzekoak, eta mugimenduzkoak batez ere.

Batez ere jolas dinamikoak eta tailerrak erabili dira. Sarritan tallerretan egindakoak gero etxera eraman ahal izan dituzten objektu eta jolasak izan dira.

Munduko herrialde ezberdinetako jolas, tailer eta errezeta dibertigarriak ezagutzeko aukera izan dugu.



Urtxintxaren begiralearen presentzia hamabost egunetik behinekoa izan da, hilean birritan etorri izan da, eguaztenetan, 18:00etatik 19:30etara.

Esan beharra dago oso pozik egon garela Urtxintxako begiraleak egindako lanarekin, bere jarrera eta ekintzak aurrera eramateko gaitasuna ezin hobia izan da.

Urtxintxaren monitorearekin tartekatuz EHUko Magisteritza eskolako praktiketako ikaslea ere egon da gurekin ikasturte osoan zehar.

Aurreko urtean Euskal Herria Museoko begiralearen partaidetza puntuala izan bagenuen Gazterren programan, aurton GUGAZTE programaren arduraduna izan dugu gure artean. Elkarlan honen helburua Gazterreneko neska-mutilei GUGAZTEko ekintzetan parte hartzeko gonbitea egitea izan da. GUGAZTE-tik burutzen diren tailer eta ikastaroak 12 urtetik gorakoentzat izaten dira, beraz, gure taldeko ume gutxi hartu dezakete parte. Hala ere, GUGAZTE programako ekintza guztien berri ematen diegu partaideei.

Neska-mutil atzeritar askok, eskolaz kanpoko harremanetan sare gisa erabiltzen dute espazio hau, batez ere beraien adineko lagunekin harremanetan.

Orokorrean, partaidetza oso ona izan da, ez da inolako arazorik egon beraien artean, eta euskara normaltasun osoz erabili izan dute ekintza guztietan.

Aurreko urtean bezala, urte honetan gurasoen partaidetza bultzatu dugu, beraiei ere ekintza batzuetan parte hartzeko gonbitea eginez. Azken saioetan batez ere, gurasoei Gazterren espaziora hurbiltzeko eskatu diegu, zuzenean beraien umeek zer egiten duten ikus dezaten. Gurasoak ekintzen garrantzia eta baliagarritasuna ikusi ondoren, errazagoa baita umeen jarraipena ziurtatzea. Beraz, gurasoen partaidetza bultzatzen jarraitzea izango da hurrengo kurtsorako beste helburuetariko bat.

Gazteen jarrera monitore berriarekiko oso positiboa izan da eta datorren kurtsorako programa berriro errepikatzeko eta finkatzeko asmoa daukagu.

- **PROPOSAMENA 2012/2013 KURTSORAKO**

Proposaturiko helburuak bete direla ikusita eta, aurtengo programaren partaidetzaren balantze positiboa izan dela ikusita, gure proposamena, datorren urterako programarekin jarraitzea da.

Laguntzarako langileriaren kontratazio-gastua. Hezitzaileen esku-hartzea, materiala, bidaia eta kudeaketa barne direlarik. Hile bakoitzean, hezitzaileak 4 orduko kontratua izango du. Ordu bete prestaketarako eta beste hirurak zuzenean gazteekin aritzeko.

URTXINTXAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA (Urtxintxaren ebaluazio txostena eta proposamen ekonomikoa eranstean da)

- **PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

230€ x 8 HILABETE (AZAROTIK - EKAINERA): 1840€

Gernika-Lumon, 2012ko irailaren 28an

Gizarte-Hezkuntzako Esku-Hartze Taldea (GHET)



IV. ERANSKINA

Gernika-Lumoko Udala eta Mertzede Ikastetxea

Memoria txostena

Mertzede Ikastetxean DBHko
ikasleen artean euskararen erabilera
informala sustatzeko proiektua



2012-01-17

0.Sarrera

Euskararen ezagutza, presentzia eta erabileran aurrerapen ugari eman dira Gernika-Lumoko udalerrian, bereziki haur eta gazteei zuzendutako esparruetan. Gernika-Lumoko Udalak aurrerapauso gehiago emateko asmoz, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzarekin jarri zen harremanetan, eta azken hauek beren-beregi sortu eta diseinatu dute eusLiderrak proiektua Mertzede Ikastetxean dabilizan DBH 3. mailako ikasleen erabilera informala areagotzeko helburuarekin. Helburu hori lortzeko, ikasle taldeekin landu dira hizkuntza ekologiaren aldeko sentiberatzea eta lider portaerak garatzeko bideak.

Proiektua bi ziklotan banatzen da, eta lehen ziklo hau, 2011ko urriaren hasieran hasi eta abenduaren 22an amaitu da.

EusLiderrak proiektuaren dinamizatze lanetan Ahize-AEK-ko teknikariokin batera, DBHko irakasle diren Ainhoa Artetxe eta Maria Garaizar aritu izan dira laguntzaile. Beraiekin batera, Udaleko euskara teknikaria, Bittor Zarrabeitia. Guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau aurrera eroaten lagundu digutelako, eta horretarako behar izan ditugun baliabideak gure esku jarri dizkigutelako.

1. Balorazio orokorra

Proiektuaren balorazioa positiboa da. Aurreikusitako ekintza giltzarriak burutu dira, eragina izan dute, eta partehartzaileak gustura aritu dira eta ongi baloratu dute proiektua.

Ikus dezakegun atalez atal:

Egin

Proiektuan aurreikusitako ekintza guztiak burutu dira, irakasleentzako formazio saioak izan ezik.

DBH 3ko ikasle guztiek jaso dituzte 3 motibazio saio urria eta azaroa bitartean. Guztira 23 ikasle izan dira.

Hiru saio horien ondoren, abendura bitarteko saioak borondatezkoak izan dira, hau da, proiektuarekin aurrera jarraitu nahi izan duten ikasleek parte hartu dute eta taldekako proiektutxoak landu dituzte abenduaren 22rako (Gabonetako oporrak hartu dituzten egunerako). Garrantzitsua da aipatzea, ikasle guztiek hartu dutela parte proiektuaren 2. etapa honetan; alegia, proiektuarekin aurrera jarraitu nahi izan duten ikasleak guztiak izan dira, hasierako 23rak.

Eragin

Proiektuan parte hartu duten ikasleengan hizkuntzen inguruko ikuspegia irekiagoa izatea lortu dugula ematen du, eta proiektuak euren portaeretan ere eragina izan duela ikusi dugu.

Hirugarren saioaren ostean puntuazioek gora egiten dutela ikusten dugu, esate baterako baieztapen hauetan: "euskara gehiago egiten dugu eta euskara ez dela hizkuntza txikia ikasi dugu", "proiektu hau erabilgarria izan da euskara gehiago erabiltzen dugulako", "oso dibertigarria eta gustukoa izan da, gainera gauza asko ikasi dugu", "oso ondo dago, honela jendeak euskarari buruzko informazio gehiago du. Eta gehiago erabiltzen da"...

	1. saioa	2. saioa	3. saioa
4. Ez nau hausnartu arazi / Hausnartu arazi nau	5,27	6,18	6,72
6. Argi daukat zergatik egin behar dudan hizkuntza aniztasunaren alde eta zergatik den ona euskaraz hitz egitea: (0 = bat ere egokia / 10 = oso egokia)	7,67	9,00	9,20

Erabilerari dagokionez, gora egin duela ikusten dugu eta batez ere, proiektuaren bukaerara arte ibili diren ikasle guztiak kontuan izanda,

salbuespenak salbu, guztiak oso motibatuta ibili direla esan dezakegu euren taldekoetako proiektuak aurrera ateratzean.

Proiektu hauek guztiak euskaraz lantzeaz gain, euskararen erabileran ikastetxe guztiari begirako lanak egin dute.

	ERABILERA (6ko puntuazioa da gehienekoa)			
Galdetegia	1.- Euskara ikasleen arteko harreman-hizkuntza da	2.- Zuk euskara erabiltzen duzu ikaskideekin	3.- Ikaskideek zurekin euskara erabiltzen dute	4.- Ikaskideek haien artean euskara erabiltzen dute
HASIERA	4,4	3,7	4,1	4,5
AMAIERA	5,1	4,6	4,8	5,1
ALDEA	0,7	0,9	0,7	0,6

Pasatako galdetegietan ikusi da ikasleen iritziz euskara gehiago erabili dutela, eta euskara gehiago erabiltzen dutela haien ikaskideek ere. Kasu guztietan puntu erdi baino gehiagokoa izan da igoera.

Partehartzaileen balorazioa

Partehartzaileek proiektua nola baloratu duten aztertzen badugu, positiboa izan dela ondorioztatu dezakegu, bai irakasleen aldetik, bai proiektuan parte hartu duten ikasleen aldetik ere. Hala azaldu dute ahoz emandako iritzietan eta pasatutako galdetegietan ere, orokorrean zein saioz saiokoetan ere.

eusLiderrak proiektuari ikasleek emandako nota	8,50
1. saioaren nota	7,50
2. saioaren nota	8,76
3. saioaren nota	9,33

Hauexek dira ikasle batzuegandik jasotakoak: hainbatek, proiektua hizkuntzen inguruko hainbat aurreiritzi aldatzeko baliagarria izan zaiela aipatu dute eta hizkuntz komunitateen biziraupena bermatzeko erabilerak duen garrantzia ere aipatu dute beste batzuek.

Gainera, oso garrantzitsua den beste puntu bat ere azpimarratu dute: "Dibertigarria izan da".

2.1. Indar-guneak

- Ikasleak proiektuan aritzean euskaraz ibili dira eta taldeka egin dituzten zereginak-proiektuak euskaraz garatu dituzte.
- Aurrera jarraitu nahi duten ikasleen kopurua ikustea pozgarria izan da (hasierako guztiak: 23). Gabonetako ebaluazioak izan dituzten arren, taldeko proiektutxoak garatzeko borondatea erakutsi dute guztiek.
- Ikasle batzuen hizkuntza jarrean aldaketatxoa nabaritu da: hasierako saioetan erdaraz egiteko ohitura izatetik, euskaraz egitera pasatu dira.
- Ikasleak gustura sentitu dira egin dutenarekin, ondo sentitu diren sentazioa adierazi digute hasieratik amaierara.
- Hizkuntzen aurreiritzien gainean eztabaidatu da, eta iritzi batzuk aldatzea lortu dugula ematen du.
- Ikastetxeak emandako laguntza, bereziki, proiektuan parte hartu duten irakasle eta ikasleek.

2.2. Hobetzeko ildo nagusiak

- Proiektua abiatu genuenean, ikastetxeko irakasleren bat eta 4. mailako ikasle bi gurekin dinamizatzailerik ibiltzea planteatu genion ikastetxeko euskara arduradunari. Ona izaten da kanpoko eragina izatea, baina era berean, ikasleek ikastetxe barruko jendea ere proiektuan badabilela ikustea ere eraginkorrek dela uste dugu, ikastetxeak ere lider lana egitea. Momentu horretan ezin izan genuen horrela egin, eta Ahize-AEK-k dinamizatu du 3. maila guztia. Dena den, ikastetxearen inplikazioa izugarri handia izan denez, barruko eragina ere hortxe egon da prozesu osoan.

2.3. Hurrengo urterako erronkak

- DBH 4ko lider berriak izendatzea. Lider berri horiek formatu beraiek izan daitezten 3. mailakoen dinamizatzailerak.
- Ikasleen autonomia landu, proiektua bere egin dezaten, eta aholkularitzak eman beharreko orduak mugatzeko.
- Taldeko proiektu erakargarri eta landuagoak lortu.
- Ekintza soziala noiz eta nola garatuko dugun zehaztu.

3. Balorazio zehatza

Hona hemen proiektuan zehar egindakoak eta horien balorazioa atalez atal:

Ekintza giltzarriak	Lorpena	Balantzea
1. DBHko zuzendaritzarekin 1. eta 2. bilera egin ikastetxeari buruzko informazioa jaso eta prozesua adosteko	%100	Egoerari buruzko informazioa jasotzeko eta prozesua adosteko bi bilera egin ziren irailean Mertzede DBHko irakasle, Udaleko euskara teknikaria eta Ahize-AEK-ko teknikarien artean.
2. DBHko irakasleak formatzeko saioa	%0	Ez da egin. Hurrengo urteari begira aztertu daiteke, irakasleek ere ezagutu dezaten zein den ikasleekin lantzen ari garen mezua. Gauza bera egin daiteke guraso edo gainontzeko eragileekin.
3. Hasierako galdetegia pasatu ikasleei	%100	Ikasleek haien erabilera nola hautematen duten jakiteko galdetegia pasatu zitzairen. (Ikusi eranskinetan hasierako galdetegia).
4. 3. bilera taldeak osatu eta gidariak prestatzeko	%100	Ikastaldean 23 ikasle daude. Guztiak saio bakarrean artatzeko gehiegitxo zen. Hori dela eta talde bat Ahize-AEK-ko teknikariak dinamizatzea planteatu zen eta bestea, 4. DBHko bi ikasle edota irakasleren batek dinamizatzea. Hala ere, irakasleen ordu faltagatik batetik, eta 4. mailako ikaslerik momentu horretan prest agertu ez izanagatik, Ahize-AEK-ko teknikariak hartu du saio guztien gidaritza.
5. Informazioa kanpaina martxan jarri	%100	Urriaren 4tik 11ra, DBHko geletan, informazio paneletan... eusLiderrak "pentsatu, sentitu, egin" kartelak eta biorrikoak zabaldu zituzten irakasleek, ikasleen jakin-mina pizteko asmoz. (Ikusi eranskinetan kartela eta biorrikoak).
6. 1. saioa: Aurrebaldintzak sortu	%100	Urriaren 11n eman ziren lehenengo saioak eta guztira 23 ikasle parte hartu zuten. Saio hau portaeraren aldaketaren aldeko motibazioa lantzeko izan zen. Honetarako kalitateko informazioa eman zitzairen ikasleei eta aurreiritziak zentsuratu. Jarrerak eta balioak landu ziren; etxerako zeregin/eskaera bat ere egin zitzairen ikasleei bigarren saiorako, erabilera nola hautematen duten jakiteko (ikusi eranskinetan 1. saioa eskaera). Saioa amaitzeko, galdetegia pasatu zitzairen (ikusi eranskinetan saioaren ondorengo galdetegia).
7. 2. saioa: Pro-aktiboa. Aldaketa erraztu	%100	Urriaren 27an egin ziren bigarren saioak, eta lehenengoan bezala 23 ikasle parte hartu zuten. Saio honetan aldaketa eragiteko gaitasunak landu ziren. Eskaera erraz bat egin zitzairen, egingarria zen eskaera bat. Negoziazioaren bitartez, aldaketak eragiteko gaitasuna landu zen saio honetan. Aldaketa hauek eragiteko tresnak eman zitzaizkien. Bukatzeko, galdetegiak bete zituzten (ikusi eranskinetan saioaren ondorengo galdetegiak).


Ekintza giltzarriak	Lorpena	Balantzea
8. 3. saioa: Feedbacka. Aldaketa indartu	%100	Azaroaren 8an eman genituen hirugarren saioak. Lehenengo bi saioetako ikasle berak parte hartu zuten. Aurreko bi saioetan egindakoaren feedbacka eman zitzaien, eta bigarren saioan agindutako eskaeratxoaren emaitzak ikusi genituen (grabatutako bideoak). Ikasleek hitz egin zuten. Prozesua nola bizi izan duten aztertu genuen, sentsazioak eta pertzepzioak jasotzeko. Amaitzeko, aurreko bi saioetan bezala, galdetegiak bete zituzten (ikusi eranskinak saioaren ondorengo galdetegiak).
9. Kamiseta oparitu saioetan parte hartu duten ikasleei	%100	Hirugarren saioan ikasleek kamiseta bana jaso zuten opari gisa eta proiektuarekin aurrera jarraitu nahi zuten ikasleen izenak jaso ziren. Lehenengo hiru saioetan ikasle guztiek parte hartu zuten, 3. mailako ikasle guztiek. Hemendik aurrera ibili direnak borondatezkoak izan dira, hau da, proiektuarekin aurrera jarraitu nahi izan dutenak. 3 motibazio saioak jaso dituzten ikasle guztiek parte hartu dute hurrengo 4 saioetan (borondatezkoetan), ekintza sozialaren bidez beraiei lana plazaratzeko.
10. 4.saioa ekintza soziala prestatzeko	%100	Azaroaren 22an izan ziren 4. saioak 3. mailako ikasle guztiekin.. 4. saioan, ikasleen zaletasunak, hiru saioetan agertutako ideiak eta balizko ekintzak landu ziren. Ekintza soziala abenduaren 22an, Gabonetako ekitaldiarekin batera egin zuten. Saio honetan bikoteak eratu genituen eta bikote bakoitzak bere zaletasunak plazaratu zituen. Bideo klip batzuk ikusita, balizko ekintza batzuen gainean aritu ginen: bikote proiektuetarako adibide interesgarriak ikusi zituzten. 23 ikasleak gertu ziren ekintza sozialari begirako borondatezko lanean parte hartzeko.
11. 5. saioa ekintza soziala prestatzeko	%100	5. saioa abenduaren 13an eman genuen. Esan beharra dago 5. eta 6. saioak ikastalde guztia batuta eman genuela eta ez bitan zatituta aurrekoetan bezala. Saio honetan, ekintza sozialerako balizko proiektuez hausnartu genuen eta bikoteka barik, taldetxoetan lan egitea erabaki zen.
12. Amaierako galdetegia pasatu ikasleei eta 6. saioa	%100	6. saioa abenduaren 20an izan zen. Aste horretan euren talde proiektutxoak promozionatzeko asmoz, gelaz gela pasatu ziren DBHko eta LHko gainontzeko ikasleen /irakasleen laguntza eskatzeko. 6. saioan ia-ia prest zeuden proiektuak findu genituen oporrak hartuko zituzten egunean ahalik eta proiektu arrakastatsuenak lortzeko.

Ekintza giltzarriak	Lorpena	Balantzea
13. Ekintza soziala	%100	Ekintza soziala, 3. mailako ikasle guztien parte hartzeaz antolatu da. Hasiera batean, ekintzak bikoteka prestatzea aurreikusi arren, azkenean, talde handiagoak egin eta hirutan banatu genuen ikastaldea. Horren emaitza, 3 proiektu handi izan dira. Talde batek, Haur Hezkuntzako geletan eragitea lortu du, horretarako HHko irakasleen laguntza izan zuten lana antolatzeko. Umeei dinamizatzailen laguntzaz, “pentsatu, sentitu eta egin” lelopean, pankarta egin zuten (Ikusi eusLiderrak Mertzedean, 1. bideo-muntaia). Bigarren taldeak, Ikastetxeko hainbat ikasleren laguntzaz, patioan 863.000 zenbakia egitea lortu zuen, zenbaki hau euskal hiztunen kopurua da. Hainbat mailatako ikasleak murgildu ziren ekintza honetan (Ikusi eusLiderrak Mertzedean, 2.bideo-muntaia). Hirugarren taldeak, “eusLiderrak Mihiluze” saioa antzeztu zuen. Lehiaketariei eroan zuten sari sinbolikoa, eusLiderrak kamiseta izan zen (Ikusi eusLiderrak Mertzedean, 3. bideo-muntaia). Ekintza sozialaren balantzea oso ona izan da, bikaina. Aipatzekoa da ikasleek egin duten lana proiektuak prestatzen; eskola orduetaz gain, bideo-muntaiak egiteko asteburuetan geratzen izan dira, horrek dakarren arduren banaketa... Gainera, Ikastetxeko beste zikloak (HH eta LH) ere mobilizatu dituzte eta DBHko beste maila batzuetako ikasle eta irakasleei ere laguntza eskatu diete proiektuak aurrera ateratzeko. Eskertzekoa da era berean, Ikastetxearen inplikazioa eta ardura izan duten irakasleek ikasleei emandako laguntza eta babesa.

4. Eranskinak

Atal honetan proiektuan erabilitako hainbat eranskin jaso ditugu:

- **Kartela:** proiektua abiatu aurretik institutuan zabaldu zen kartel mutua.



- **Bi-orrikoak:** proiektuan parte hartu duten ikasleei banatutako bi-orrikoak.

EusLiderrak

Mertzedeko Ikastetxeko DBH

pentsatu
sentitu
egin

XXI. mendean
hizkuntza aniztasunaren alde
egingo duten
liderrak formatzen

EusLiderrak

Mertzedeko Ikastetxeko DBH 2011

- Helburua:**
Proiektu honen helburua da hizkuntza aniztasunaren alde gogoz arituko diren pertsonak formatu eta aktibatzea.
- Metodologia:**
Proiektu hau EHUKo Gizarte Psikologia eta Giza Portaera Zientzien Metodologia Sailak erakundeetan Berrikuntzaren Kultura Sustatzeko 2003 urtetik hona garatu duen IVO – Incremento del Valor Organizacional proiektuan du oinarri metodologikoa.
- Antolatzaileak:**
Gernikan garatuko den proiektuaren atal hau Udala, Mertzedeko Ikastetxea eta Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzaren elkarlanetik sortu da.

• Proiektua abiatu aurreko galdetegia:

COD 1: Zure kalearen azken bi hizkiak adierazi.

Adibideak:

- BERRIOZAR IBILBIDEA balitz, adierazi AR.

COD 2: Zure auzoaren edo distrituaren azken bi hizkiak adierazi:

Adibideak:

- SAN JUAN auzoa balitz, adierazi AN.
- DEUSTU balitz, adierazi TU.

COD 3: Zure telefonoaren (eskukoa edo etxekoa) azken bi zenbakiak adierazi.

Adibideak:

- 650 000 043 balitz, adierazi 43.
- 944 000 179 balitz, adierazi 79.

Erantzuteko aukerak:

Erantzun quztiak egokiak dira, ez daude zuzenak edo hobeak. Benetan pentsatzen duzuna da baliagarriena. Batzuetan, jarraian duzun eskalaren arabera erantzun, beste batzuetan erantzun irekiak dira: kopuruak edo iritziak eskatuko zaizkizu. Galderak orainaldian eginda daude. Hala ere, erantzuteko kokatu zure burua hiru denbora espazioetan: lehen, orain eta gero.

KOD 1: ____
KOD 2: ____
KOD 3: ____

1	2	3	4	5	6
Erabat ez-ados Oso gaizki Oso txarra Beti erdaraz	Ez-ados Gaizki Txarra Nagusiki erdaraz	Nahiko ez-ados Nahiko gaizki Nahiko txarra Erdaraz gehiago	Nahiko ados Nahiko ondo Nahiko ona Euskaraz gehiago	Ados Ondo Ona Nagusiki euskaraz	Erabat ados Oso ondo Oso ona Beti euskaraz

- Euskara ikasleen arteko harreman-hizkuntza da
- Zuk euskara erabiltzen duzu ikaskideekin
- Euskara erabiltzen dute ikaskideek zurekin
- Zenbat ikaskiderekin egiten duzu euskaraz? (Kopurua idatzi)
- Zenbat ikaskiderekin egiten duzu euskaraz gaztelaniaz baino gehiago?
- Euskara erabiltzen dute ikaskideek haien artean?
- Euskaraz hitz egiteko gaitasun nahikoa duzu?
- Euskaraz hitz egiteko erraztasuna duzu?
- Zenbateraino zara eroso beste batek euskaraz egiten dizunean?
- Zenbateraino zara eroso euskaraz egiten duzunean?
- Zerk eragiten dizu deserosotasuna?
- Zerk eragiten dizu erosotasuna?
- Onartzen duzu beste batek zurekin euskaraz egin nahi duela esatea?
- Euskaraz hitz egiteko gogoia duzu?
- Ahalegintzen zara euskaraz hitz egiten?
- Pentsatzen duzu zerbait aldatu egin behar duzula?
- Zenbateraino uste duzu zure esku dagoela euskara zure ohiko hizkuntza izatea?
- Zenbateraino uste duzu zure esku dagoela besteek ere euskaraz egitea?
- Zure ustez erabilera oztopatzen duten faktoreetan eragiteko gaitasuna duzu?
- Zure erabilera hobetzeko egin dezakezuna argi duzu?
- Taldean erabilera hobetzeko egin dezakezuna argi duzu?
- Aldaketak negoziatzeko gaitasuna duzu?
- Ikaskideek ongi baloratzen dute euskara gehiago egitea?

1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
-	-	-	-	-	-
-	-	-	-	-	-
-	-	-	-	-	-
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6

24. Taldeak babesten du euskaraz hitz egin nahi duen ikaslea?
25. Euskaraz hitz egiteko aukera duzu?
26. Ikastetxeak euskaraz hitz egiteari garrantzia ematen diola sumatzen duzu?
27. Ikastetxearen jarrera sendoa dela pentsatzen duzu?
28. Zenbateraino dira atseginak erabilerara sustatzeko egitasmoak?
29. Euskara eta hizkuntzen gaia zure lehentasunetan dago?
30. Orokorrean konfiantza altua duzu zure pentsamenduetan?
31. Euskararen erabilerari buruz duzun iritzia hitz gutxitan:

1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6
1	2	3	4	5	6

• **1. saioaren ondorengo eginkizunerako fitxa:**

ERABILERAREN HAUTEMATEA AZALTZEKO FITXA

Zure ustez zer pentsatzen du jendeak euskararen erabileraren inguruan? Zer entzun duzu?	Zein da adostu dezakegun pentsamoldea edo iritzia?	Nola egin dezakegu hori? Bete ezin diren proposamenak egin, absurdoak.
1.	1.	▪
2.	2.	▪
3.	3.	▪
4.	4.	▪
5.	5.	▪
6.	6.	▪

- Saioen ondorengo galdetegia:

1. **Saioa bere osotasunean balora ezazu** (0 = oso txarra / 10 = bikaina):

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Saioa iruditu zait ... (item guztiak erantzun):

2.	Ez motibagarria	1	2	3	4	5	6	Motibagarria
3.	Ez nau gai sentitu arazi	1	2	3	4	5	6	Gai sentitu arazi nau
4.	Ez nau hausnartu arazi	1	2	3	4	5	6	Hausnartu arazi nau
5.	Nahasgarria	1	2	3	4	5	6	Argigarria
6. Argi daukat zergatik egin behar dudan hizkuntza aniztasunaren alde eta zergatik den ona euskaraz hitz egitea: (0 = bat ere egokia / 10 = oso egokia):								
0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10								

Hizkuntza aniztasuna eta euskaraz aritzea iruditzen zait:

7.	Ez beharrezkoa	1	2	3	4	5	6	Beharrezkoa
8.	Ez interesgarria	1	2	3	4	5	6	Interesgarria
9.	Ez bideragarria	1	2	3	4	5	6	Bideragarria
10.	Premiarik gabea	1	2	3	4	5	6	Premiazkoa
11.	Garrantzirik gabea	1	2	3	4	5	6	Garrantzitsua
12.	Nekeza	1	2	3	4	5	6	Gustukoa
13.	Ez ulergarria	1	2	3	4	5	6	Ulergarria
14.	Ez berria	1	2	3	4	5	6	Berria

15. Saioak sortarazi dizkizun ideiak, pentsamenduak, hausnarketak, ... **idatzi puntuen ondoan** (hartu minutu pare bat erantzuteko):

•
•
•
•
•
•
•
•

•
•
•
•
•
•
•
•

16. **Saioa eta gero ... (bat aukeratu):**

- ☐ Aurretik pentsatzen nuenarekin gelditzen naiz
- ☐ Azaldutako argudioekin gelditzen naiz



17. **Saioa eta gero** (adierazi zein mailatan eragin dizun saioak 0tik 10era zenbaki bat esleituz esaldien ondoan):

- _____ Entzundakoa aurretik pentsatzen nuen
 _____ Nire posizioa positiboagoa da
 _____ Esandakoa lagungarria da jarrera berria garatzeko
 _____ Euskaraz hitz egitea hizkuntza aniztasuna garatzeko bide bat da
 _____ Gako berriak eman dizkit pentsatzeko
 _____ Hizkuntza aniztasuna eta euskaraz aritzea uste baino inportanteagoak dira

Proiektua amaitu ondorengo galdetegia:

MESEDEZ, BEHEKO ERANTZUNAK EMAN BAINO LEHEN, BETE KODE-KOADROA, ONDOKO ARGIBIDEEI JARRAITUZ

COD 1: Zure kalearen azken bi hizkiak adierazi.

Adibidea:

- BERRIOZAR IBILBIDEA
balitz, adierazi AR.

COD 2: Zure auzoaren edo distrituaren azken bi hizkiak adierazi:

Adibidea:

- SAN JUAN auzoa balitz, adierazi AN.
- DEUSTU balitz, adierazi TU.

COD 3: Zure telefonoaren (eskukoa edo etxekoa) azken bi zenbakiak adierazi.

Adibidea:

- 650 000 043 balitz, adierazi 43.
- 944 000 179 balitz, adierazi 79.

Erantzuteko aukerak:

Erantzun quztiak egokiak dira, ez daude zuzenak edo hobeak. Benetan pentsatzen duzuna da baliagarria.
 Batzuetan, jarraian duzun eskalaren arabera erantzun, beste batzuetan erantzun irekiak dira: kopuruak edo iritziak eskatuko zaizkizu.
 Galderak orainaldian eginda daude. Hala ere, erantzuteko kokatu zure burua hiru denbora espazioetan: lehen, orain eta gero.

KOD 1: _____
 KOD 2: _____
 KOD 3: _____

1	2	3	4	5	6
Erabat ez-ados Oso gaizki Oso txarra Beti erdaraz	Ez-ados Gaizki Txarra Nagusiki erdaraz	Nahiko ez-ados Nahiko gaizki Nahiko txarra Erdaraz gehiago	Nahiko ados Nahiko ondo Nahiko ona Euskaraz gehiago	Ados Ondo Ona Nagusiki euskaraz	Erabat ados Oso ondo Oso ona Beti euskaraz

32.	Euskara ikasleen arteko harreman-hizkuntza da	1	2	3	4	5	6
33.	Zuk euskara erabiltzen duzu ikaskideekin	1	2	3	4	5	6
34.	Euskara erabiltzen dute ikaskideek zurekin	1	2	3	4	5	6
35.	Zenbat ikaskiderekin egiten duzu euskaraz? (Kopurua idatzi)						
36.	Zenbat ikaskiderekin egiten duzu euskaraz gaztelaniaz baino gehiago?						
37.	Euskara erabiltzen dute ikaskideek haien artean?	1	2	3	4	5	6
38.	Euskaraz hitz egiteko gaitasun nahikoa duzu?	1	2	3	4	5	6
39.	Euskaraz hitz egiteko erraztasuna duzu?	1	2	3	4	5	6
40.	Zenbateraino zara eroso beste batek euskaraz egiten dizunean?	1	2	3	4	5	6
41.	Zenbateraino zara eroso euskaraz egiten duzunean?	1	2	3	4	5	6
42.	Zerk eragiten dizu deserosotasuna?	-	-	-	-	-	-
43.	Zerk eragiten dizu erosotasuna?	-	-	-	-	-	-
44.	Onartzen duzu beste batek zurekin euskaraz egin nahi duela esatea?	1	2	3	4	5	6



45.	Euskaraz hitz egiteko gogo duzu?	1	2	3	4	5	6
46.	Ahalegintzen zara euskaraz hitz egiten?	1	2	3	4	5	6
47.	Pentsatzen duzu zer bait aldatu egin behar duzula?	1	2	3	4	5	6
48.	Zenbateraino uste duzu zure esku dagoela euskara zure ohiko hizkuntza izatea?	1	2	3	4	5	6
49.	Zenbateraino uste duzu zure esku dagoela besteek ere euskaraz egitea?	1	2	3	4	5	6
50.	Zure ustez erabilera oztopatzen duten faktoreetan eragiteko gaitasuna duzu?	1	2	3	4	5	6
51.	Zure erabilera hobetzeko egin dezakezuna argi duzu?	1	2	3	4	5	6
52.	Taldean erabilera hobetzeko egin dezakezuna argi duzu?	1	2	3	4	5	6
53.	Aldaketak negoziatzeko gaitasuna duzu?	1	2	3	4	5	6
54.	Ikaskideek ongi baloratzen dute euskara gehiago egitea?	1	2	3	4	5	6
55.	Taldeak babesten du euskaraz hitz egin nahi duen ikaslea?	1	2	3	4	5	6
56.	Euskaraz hitz egiteko aukera duzu?	1	2	3	4	5	6
57.	Ikastetxeak euskaraz hitz egiteari garrantzia ematen diola sumatzen duzu?	1	2	3	4	5	6
58.	Ikastetxearen jarrera sendoa dela pentsatzen duzu?	1	2	3	4	5	6
59.	Zenbateraino dira atseginak erabilera sustatzeko egitasmoak?	1	2	3	4	5	6
60.	Euskara eta hizkuntzen gaia zure lehentasunetan dago?	1	2	3	4	5	6
61.	Orokorrean konfiantza altua duzu zure pentsamenduetan?	1	2	3	4	5	6
62.	Euskararen erabilerari buruz duzun iritzia hitz gutxitan:						
63.	Saioen artean bidalitako lanak egin dituzu?		B ai			Ez	
64.	Bikoteen proiektuan parte hartu duzu?		B ai			Ez	
65.	Saioen artean bidalitako lanak egin dituzu?		B ai			Ez	
66.	Euskara gehiago erabili duzula uste duzu?	1	2	3	4	5	6
67.	Ikaskideek euskara gehiago erabili dutela uste duzu?	1	2	3	4	5	6
68.	Nola baloratzen duzu proiektu honekin egindako ahalegina?	1	2	3	4	5	6
69.	Aurrea begira, lortutakoari eusteko asmoa duzu?	1	2	3	4	5	6
70.	Nola baloratzen duzu egitasmoa bere osotasunean (3 saioak barne)?	1	2	3	4	5	6
71.	Azaldu hitzez proiektuari buruz duzun iritzia:						

Oparitu zitzaien kamisetan agertzen den logoa:

